

Gezala

AUDITORIUMA

K
U
L
T
U
R
A
K



SMOKE SCREEN DANTZA TALDEA

"Funk Hip Hop dantza"

2007ko Ekainak 15, Ostirala • Ordua:20:30

Gurutze Santuaren Plazan



"Smoke Screen" Euskal Herriko lehen funk eta hip-hop dantza taldea da. 1997an sortua, Elisabet Baztan eta Sergio Nguema dira taldearen zuzendariak. Dantza ikuskizunak eskaintzeaz gain, emanaldien aurretik tailerrak egiteagatik ere bereizten dira. Kasu honetan ere, emanaldia joan aurretik dantzak frogatu nahi dutenek tailerretan parte hartzeko aukera izango dute:

1) Hip hop (helduentzako): Sergio Nguema / 2) Hip-hop (Haurrentzako): Gueresi Alza / 3) Afro-brasildarra: Isabel Plaza Lizama.

TAILERRAK

Lehengo urtean TIP TAP CLAP elkarteak arrakasta nabaria lortu zuen, bai diziplina ezberdinetako dantza tailerrak antolatu zituenean, baita musika, klakea, antzerkia... fusionatzen zituen 'MUSITAP' izeneko ikuskizuna aurkeztu zuenean ere. Aurten tailer eta ikuskizun gehiagorekin errepikatzea proposatzen dizugu. Tailer hauek, klakean sakontzeko balio izateaz gain, beste diziplinen berri jasotzeko aukera emango digute. Tailerretan arituko direnak talentu eta eskarmentu handiko irakasleak/dantzariak izango dira!

Azpian dituzu aurtengo ikastaro aukerak. Anima zaitez!

- Ekainak 15-16 eta 17an: Klake – Body Perkusioa – Hip Hop – Bateria
- Ekainak 22: Afro – Brasileñoa
- Inskripzioa eta informazio gehiago: 630 705 594 / tiptapclaps@hotmail.com

TIP, TAP, CLAP

Hainbat dantza ezberdinen emanaldia: Afro, brasileiro, Hip-Hop, Claque

2007ko Ekainak 16, Larunbata • 20:30

Gezala Auditoriumean



Tip Tap Clap elkartearen "La gala galactica" emanaldi zoragarri honetan, dantza, zuzeneko musika eta antzerkia nahasteko asmoa dute. Zuzenean arituko den musika taldea alde batetik eta dantzariak bestetik. Dantzariak. Celine Urzaiz, Ruben Sánchez eta Jep Melendez Bartzelonakoa arituko dira elkarrekin..

Klaketaren historian zehar bidaiatuko dugu, estilo ezberdinak ikusiz: afrikar perkusiotik hasi eta swing, funky edo jazz bezalako estiloetatik iragango gara. Musika eta dantzaren bidez arte eder honen historiaren berri izango dugu.

Edonola emanaldia joan aurretik dantza mota hau frogatu nahi duenak tailerretan parte hartzeko aukera izango du. Ekainaren 15ean eta 16ean egingo dira tailerrak eta ondokoak izango dira.

IRAKASLEAK

Nazioartean eskarmentua duten eta Lezon ezagutzeko aukera izango ditugun 8 artista etorriko zaizkigu II. Dantza Jardunaldiara. Ikuskizunetan dantzari eta tailerretan irakasle lanetan aritu diren dantzari profesionalen zerrenda ondokoak da:

Jep Melendez: Nazioartean ezaguna den klake dantzaria. B.R.T. Konpainiako dantzaria.

Ruben Sánchez: Bartzelona. CAMUT BAND eta TAPEPLAS konpainietan dantzari bakarlaria da

Isabel Plaza: Txile. Afrikar dantza eta dantza garaikidea erakusten dabilen irakaslea.

Geresi Alza: Hip-hop, funky eta aerobic irakaslea.

Celine Urzaiz: Lezoar klake dantzari eta irakaslea. Tip Tap Klap Elkartearen lehendakaria.

Sergio Nguema: Hip-hop dantzaria. Smoke Screen konpainiako zuzendari eta dantzaria.

Pako Diaz: Valentzia. Bateria jolea, Akelarre, Javier Colina, Benito Lertxundi, Tino Casal, Orquesta Mondragón eta beste hainbatekin aritua.

Larraitx Ugartemendia: Ereintzan dantzan hasia, Erreterriako Musika kontserbatorioko dantza irakaslea da.



MIXING DANCE REALITIES

Dantza ezberdinen emanaldia: Garaikidea & Jazz & Acroindar

2007ko Ekainak 22, Ostirala • 20:30

Gezala Auditoriumean

• **Isabel Plaza Lizama:** Santiago de Txilen sortua 1975ean. Santiagon (Universidad de Artes y Ciencias de la Educación ARCIS) bertan eta Bordelen (Cefedem Aquitaine) dantza ikasten aritua 1996-2002 urte bitartean.

Marcela Estayrekin has izen dantzan Txilen 1990ean. Geroago, dantza modernoa eta afro-brasildarra ezagutzen duen Veronica Veras irakaslearekin jarraitu zuen. Txiletik Frantziara etorri zenean beningo Vincent Harisdo dantzariarekin egin zuen topo afrikar edierazpeneko dantzan sakontzen jarraitu zuelarik. 2002tik eguera arte Gipuzkoan biz da eta irakasle lanetan dihardu, afrikar dantza eta dantza modernoa erakutsiz.


"Encuentros" izeneko pieza aurkeztuko du, konplizitatez eta umorez betea. Kanean elkarrekin topo egiten duten pertsona talde batek elkarrekin zer bait egiten amaituko dute.

• **Maider Oiarzabal:** Dantza munduan urte asko daraman Lasarte-Oriar gaztea. Lehengo urteko dantza topaketetan Lezon erakutsi zizkigun bere gaitasunak.

• **Acroindar:** Acroindar taldeko lagunek akrobaziak eta dantza batzen dituzte. Haiek asmatutako nahasketa da; nahasketa erakargarria. Acroindar dute izena, eta akrobaziak eta dantza uztartzen dituzte. E-maila ikusgarria da. Indarra, abilezia, elastikotasuna, oreka... osagai askoren nahasketa.

Dantza eta balantza ibiltzen dira. Baina balantza orekatua da, grabitatearen legeak zalantzan jartzen dituen. Gai dira gorputz osoa airean izateko, aldamenekoaren hanka edo esku bakar batean bermatuta. Oker-okar eginda, gomazkoak balira bezala, baina era berean estilizatu eta eder. Ezinezkoak diruditen irudiak sortzen dituzte. (Berria, 2007ko otsailak 13).

• **Jazz Talya taldea:** Jazz Talya taldea Funky dantza taldea da. Aurtengo Victoria Eugenia Antzokiaren promozio bideoa da egin duten azken lan aipagarriena. Bideoa gain, aipatu antzokiaren irekiera ekitaldian parte hartu zuten. Profesionaltasunaren ibilbidea gogoz jorratu dute eta Lasarte-Oriako Manuel Lekuona Kultur Etxean Eskolen 5. erakusketan aritu izanaz aparte, "Así baila Vitoria- Gasteiz"en 6. edizioan izan dira edota Donostiako Dantza Profesionalaren Elkarteak antolatutako Dantza Sarietako hainbat edizioetan ere eskaini dute euren abilezia.



OINKARI DANTZA TALDEA

Aspaldikotik

2007ko Ekainak 29, Ostirala • 22:30

Bekoerrota Kiroldegian



Proiektu berri honetan Edu Muruamendiaraz dantza zuzendaria eta Xanet Arozena musika zuzendariaz gain, elementu berriak gehitu dizkiete: Juan Kruz Igerabide eta Iñaki Beraetxe. Igerabide idazle adunarra emanaldiaren gidoia prestatzeaz arduratu da. OINKARIk espresuki hala eskatuta, emanaldiko dantza guztiak hari batekin lotuko dituen sorginei buruzko amodio ipuin bat idatzi du. Ipuin honetako hitzei Iñaki Beraetxe euskal aktore ezagunak jarriko die ahotsa.

Emanaldi berri honetan dantza tradizionalak beren pisua izango duten arren, koreografia berriek ere izango dute presentzia. Ez da zuzeneko doinurik ere faltako, guztira 8 musikari arituko baitira lanean. Argi eta soinu efektuek emango diote sorgin ipuin honek eskatzen duen misteriozko efektua.

Emanaldi hau ikusteko lehen aukera Billabonan izango da ekainaren 16an eta Lezon izango dugu bigarren emanaldia ikusteko aukera.

MURIXKA D.T.

Kurtso amaierako aktuzioa

2007ko Ekainak 30, Larunbata • 22:30

Bekoerrota Kiroldegia



Murixka Dantza Taldea Lezoko Euskal dantza taldea dugu. Aurtengoa urte berezia ospatzen ari dira, duela 50 urte sortutako Lezoko Dantza Taldearen jarraitzaileak baitira. Horren ondorio dira aurtengoa egiten ari diren hainbat ekitaldi: erakusketak, emanaldi bereziak, ... Halere, oraingoan errotua duten kurtso amaierako aktuzioarekin datozkigu.

Aurtengoa, beste batzuen artean ondokoak dira ikusi eta dastatzeko izango ditugun dantza batzuk:

- Batelerak
- Itxaropena zortzikoa
- Ezpatadantza Aaia
- Kaxarranaka
- Lezoko Herria
- ...




Lezoko zine agenda

EKAINA

JUNIO

2007



Gezalla

AUDITORIUMA

800
zine ma

► Sabin Oregi


Izenburua: *Ura*

Euskarria: Argazkia

Egutegia: 2007-06-04 / 06-29

Ordutegia: Astelehenetik ostiralera: 9:00-14:00

Lekua: Kultur Aretoa (Donibane kalea 2)



Sabin Oregi, Zarautz. Bordelen lortu zuen Komunikazio eta Informazio zientzietan doktoregoa. Egun dakit argitaldarien sortzaile eta kudeatzailea da. Lehenago kazetaritzan zenbait urteetan jarduna da, tartean La Voz de Euskadi egunkarian jardun zuen kulturako ataleko arduradun bezala. Baina bere lankidetzak Deia, Egin, Habe, Argia edo Anaitasuna agerkarietan eman izan du. Erreportajeak bakarka egin beharrak, eta berak zuen argazkirako zaletasunak murgildu zuten argazkia era serioagoan lantzea, horrela kazetari-argazkia egitea.

Erakusketa honetan ikusten ditugun irudien artean garai "zahar" horietan ateratako zenbait irudi biltzen ditu gaur eguneko irudi berriei. Guztiak badute lotzen duten gaia: ura.

Ur gazi-geza, ibai, erreka edo itsasokoa izan; guztietan pertsonen lanbidea edo poza eman die. Arrantza edo errota —artoa ehotzeko edo burdina lantzeko— ditugu adibide. Surfa edo Kite board ditugu aisaldirako adibide berriak. Baina kazetari argazkilari honek Zumaia azken urte hauetan egon izan den istripu larri bat ere nozitu zuen informatzaile bezala, itsasoan errepidera eramandako mihi luzeak Pesaren autobusa arroketa jaurti eta txikitu zuen denbora txikian: «guztiak hilik suertatu zirelakoan nago» —esaten digu argazkilariak—, baina . «ez naiz gogoratzen. Debora asko jasan baita», —esaten du azkenez—.

► JOSE RAMON MAKUSO

Hiri gorazarre

2007ko ekainak 28, Osteguna • 20:30

Gezala Auditoriumean



"Hiri gorazarre" Musipoema emanaldia, musika eta poesia, irudiekin batera uztartzen dituen emanaldia. Bertan, hiri gorazarre (Elea 2006) poema liburutik ibilbide bat egiten da.

Poesia liburu honetan hiria da gaia eta euskarria. Gizakiaren ibilbidea bere izaeratik, hirikoa izatea da. Eta egun, Lezon, Gezala auditoriuma espazioa, hiriari egiten zaion laudorioa da. Are gehiago, hitzetik hortzera iragartzen zaigu Gipuzkoa hiria eremua, eta Lezoko Gezala auditoriuma, artearen agora izan daiteke. Eta testuinguru honetan kokatzen dut nire nahia espazio horretan poesia emanaldia egiteko.

Poesia eta musika (gitarra elektrikoa eta txeloa) eta akuarelak, hirikoa den Gezalako hormak margotu eta zipriztintzea da gure nahia. Emanaldia hirien espiritua azaltzeko balio du, gonbidapen bat da hirietatik barna bidaiatzeko, poesia musika eta margoen laguntzaz."

Musikoak: txeloa, Iñaki Alberro, gitarra elektrikoa, Josemari Mitxelena.



Osteguna / Larunbata **2,00**
Larunbata 16:30etan **1,00**

Gezala
AUDITORIUMA
Lezo

OSTEGUNA • jueves LARUNBATA • sábado

EUSKAL IPUINAK

Gure herriko lau ipuin klasiko: 'Ttartalo' begibakarra, 'Patxi Errementaria' infernuko etsaien beldurra, 'Mai-kilakixki' makil 'gur banatzailea eta 'Gizon harrigarriak'. Ipuin bakoitzean gure kulturaren jada klasikoak diren kontakizunak ikus ditzakegu.

2002, EH. 60 min. Arkaitz Alastuey. Marrazki bizidunak

SUPERTRAMPS

Hirian barna ibiltzen dira noraezean. Jendeak botatako zaborretatik bizi dira. Kasu gehienetan ziki-nak eta nardagarriak dira, benetako baztertuak dira: arratoi, labezomorro, uso, kaleko katuak... Guzti horiek osatzen dute etxegabeko animalien erreinua.

2004, EH. 79 min. Jose Mari Goenaga / Iñigo Berasategi. Marrazki bizidunak.

TRIKI, TRAKA, TRON

Txirri, Mirri eta Txiribiton izango dira ziurrenik euskal pailazo zaharrenetakoak eta ezagunenetako-ak. Belaunaldi ezberdinak beren emaldi umoretsuekin denbora atseginak pasatakoak dira. Gaurko proiektzioan, beren abesti eta istorio barregarriez tartekatutako emanaldiaz gozatzeko aukera izan-go duzu Gezalara hurbilduz gero.

2005, EH. 90 min. Txirri, Mirri eta Txiribiton. Txirri, Mirri eta Txiribiton.

ADARBAKARRAREN KONDAIRA

Arrantzale herrixka batean helduak arrantzar joan dira. Bitartean haurrak basora doaz eta han azti batek helduen itsasontzia urperatu egin dela jakinarazten die. Hortik aurrera dena abentura!

2001, EH. 90 min. Maite Ruiz de Austria. Marrazki bizidunak.

5 x 2

Bikote baten banaketaren istorioa kontatzen du oraingoan Ozonek. Gaur egunetik atzerako ibilbi-dea egingo du bost une bereiziz senar-emazte horien bizitzan. Kontatzeko era originala Ozonena.

2004, Frantzia. 90 min. François Ozon.
Valeria Bruni Tedeschi, Stéphane Freiss, Françoise Fabian, Michael Lonsdale.

KINSEY

Sexualitatearen ikuspegia aldatu zuen zientifikoa da Kinsey. Duela oso urte gutxira arte inork galdetzen ez zituen galderak egitera ausartu zen eta, zailena, jendeak erantzutea lortu zuen. Biografia oso interes-garria modu atseginetan pantailaratua.

2004, EEBB. 118 min. Bill Condon.
Liam Neeson, Laura Linney, Chris O'Donnell, Peter Sarsgaard, Timothy Hutton.

FAMILIA RODANTE

Road movie argentinar oso kurioa. Buenos Airesen bizi den partaide askoz osatutako familiak hegoaldera joateko ezkontza gonbidapena jasotzen du. Amona, haurrak, txakurrak eta dena dire-lakoak hartu eta autokarabana zahar batean hor abiatuko dira.

2004, Argentina. 103 min. Pablo Trapero.
Liliana Capurro, Graciana Chironi, Ruth Dobel, Federico Esquerro, Bernardo Forteza.

NOCHE EN LA TIERRA

5 istorio, 5 hiri (Los Angeles, Nueva York, Paris, Roma eta Helsinki) ezberdinetan. Bost pertsonai ezberdinek aipatu hiriak bisitatuko dituzte taxian, gauetik eguna argitu arte. Jarmuschek oso ongi asmatu zuen esperimentu polit honekin.

1991, EEBB, Frantzia, EB, Alemania, Finlandia. 129 min. Jim Jarmusch.
Liliana Capurro, Graciana Chironi, Ruth Dobel, Federico Esquerro, Bernardo Forteza.

AUDITORIUMA

Gezala

EKAINA - junio

eguna/dia	ordua/hora	pelikula
LARUNBATA 2	16:30	EUSKAL IPUINAK
OSTEGUNA 7	22:00	5 x 2
LARUNBATA 9	16:30	SUPERTRAMPS
OSTEGUNA 14	22:00	KINSEY
LARUNBATA 16		EZ DAGO EMANALDIRIK
OSTEGUNA 21	22:00	FAMILIA RODANTE
LARUNBATA 23	16:30	TRIKI, TRAKA, TRON
OSTEGUNA 28	22:00	NOCHE EN LA TIERRA
LARUNBATA 30	16:30	ADARBAKARRAREN KONDAIRA

II DANTZA JARDUNALDIAK

OSTIRALA 15	20:30	SMOKE SCREEN
LARUNBATA 16	20:30	TIP, TAP, CLAP
OSTIRALA 22	20:30	DNTZARI EZBERDINAK
OSTIRALA 29	22:30	OINKARI
larunbata 30	22:30	MURIXKA

MUSIPOEMA

osteguna 28	20:30	JOSE RAMON MAKUSO
-------------	-------	-------------------